

Igeldoko La Sirena Aterpetxea

Donostiako Igeldo auzoko La Sirena aterpetxea 1992an zabaldu zen. Aurretik Anoetan bazen gazte aterpetxe bat eta YHiren barne zegoen. La Sirenako jabea den Jose Juan Ijurjok adierazi digunez, aterbe mota hauetan gehienbat jende gazteak hartzen du ostatu. Baina horrek ez du esan nahi jende helduagoa igarotzen ez denik. Ikasturtean zehar ikasleentzako aterbea da: «Espainiatik etorritako ikasleak izaten dira gehienbat. Uda partean, berriz, estatu batuarak, italiarrak, alemaniarak eta britainarrak biltzen dira hemen besteak beste. Neguan, Argentina, Brasil edo Australiatik etorritako gazte ugari izaten ditugu, han uda baita orduan».

diosku Jose Juan Ijurkok. Logelak lau, sei edo zortzi ohetakoak dira, baina badaude ohe gehiagoko gelak ere. Prezioari dagokionez, 25 urtetik behe-rakoentzat oheak eta gosariak, uda sasoiari, 2.000 pezeta balio ditu eguneko (80 libera); 25 urtetik gorakoentzat, berriz, 2.255 pezeta (90 libera inguru). Uda sasoi-tik kanpo prezioak merkeagoak dira: 1.640 pezeta 25 urtetik berakoentzat (65 libera) eta 2.000 pezeta 26 urtetik gorakoentzat.

La Sirena aterpetxea urte osoan zehar irekia egoten da, eta zenbait aterbe 24 orduz irekiak egoten badi-ra ere, hemen goizaldeko 2:00etan ateak isten dira, jendeak lasai lo egin dezan.

ten dituzte, baina gehienetan sukaldea izaten da eta bakoitzak bere otorduak presta ditzake bertan.

• Aterpekide agiria

Nazioarteko Gazte aterpetxe-etan ostatua hartzeko bazkide izan beharra dago, aterpekide agiria lortu behar da. Aterpekide agiria edozeinek lor dezake, aski da herriko gazte informazio bulegora jotzea. Unibertsitatean ikasten duenak ere aukera du bertan agiria ateratzeko eta zenbait aterpetxeek ere momentuan agiria egiten dute. Agiriak mundu osorako balio du, beti ere aterbeak IYHFaren barne badaude. Gainera, 2000garren urtera-

ko deskontu bereziak daude bazkideentzako.

• Gida liburua

Ostatu merkeen zerrenda agertzen den gida liburua Budget Accomodation Guide da. Bertan munduan banaturik dauden gazte-aterbeen zerrenda aurki daiteke. Gida honetan aterpetxe bakoitzari buruzko informazioa azaltzen da: helbideak, prezioak, eskaintzen dituzten zerbitzuak, ordutegiak... Gida Gazte-aterpetxeen Elkarte-an, turismo bulegotan edo zenbait liburutegietan aurki daiteke. Oso praktiko eta erabilgarria izan daiteke asko bidaiatzen duenarentzat.



GARI GARAIALDE

Atzerriarrak dira Euskal Herriko Youth Hostelling sareko aterpetxeetako bezero nagusiak.

Euskal Herriko Gazte-Aterpetxeak

Bizkaia

PLENTZIA	Plentziako Gazte-aterbea	36	Tel: 94 677 18 66
----------	--------------------------	----	-------------------

Araba

GASTEIZ	Carlos Abaitua aterpetxea	100	Tel: 945 14 81 00
---------	---------------------------	-----	-------------------

Gipuzkoa

DONOSTIA	La Sirena Aterpetxea	102	Tel: 943 31 02 68
DONOSTIA	Ulia-mendi Aterpetxea	65	Tel: 943 31 01 79
HONDARRIBIA	Juan Sebastian Elkano	180	Tel: 943 64 15 50
ZARAUZ	Albertia Mendia Aterbea	160	Tel: 943 13 29 10

Nafarroa

ALTSASU	St Cristo de Otadia	70	Tel: 948 56 23 04
ORREAGA	Orreagako aterpetxea	65	Tel: 948 76 00 15
IRUÑA	Fuerte de Principe aterbea	25	Tel: 948 23 52 00
LEKAROS	Baztango aterpetxea	65	Tel: 948 58 10 36
LIZARRA	Oncineda aterpetxea	150	Tel: 948 55 39 54

Lapurdi

MIARRITZE	Aintziko Gazte Etxea		Tel: 0559417600
ANGELU	Gazte Etxea	90	Tel: 0559587000



ZARAUZKO UDALA



Zarautz,
Bost izarreko
uda